

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK



Ezagunak izateko lehenik eta behin web gune bat sortuko dugu. Web horretan hainbat gune egongo dira.

Alde batetik, sarrera, atal honetan bateria nolakoa den eta nola funtzionatzen duen azalduta egongo da. Modu horretan bezeroak bateriari buruzko informazio guztia dute eta edozein momentuan sartu daitezke.

Atal honetan ere azaltzen da nortzuk garen, nolakoa da gure enpresa, nola lan egiten dugun...

Beste aldetik, atal bat dago bateria desberdinentzat. Gure enpresak bi sortzen ditu: auto txikiarentzat eta auto handientzat, tamainaren arabera autoak potentzia handiagoko edo txikiagoko kargak behar dituzte.

Hirugarren atalean erosteko aukera dago. Bertan, nahi duzun bateria eros dezakezu, eta kreditu-txartelarekin edo ordaintzeko edozein metodorekin ordain daiteke.

Azkeniik, gure webguneak bezeroaren arretarako atal bat dauka. Hona hemen posta eta telefono zenbakia gurekin harremanetan jartzeko. Edozein zalantza erantzuten dugu eta horretaz gain, bi baterietatik zein den onena bere auto motarako.

Publizitatea egiteko, gure proiektua azaltzen duten kartelak jarriko ditugu, eta telefono edo posta zenbaki bat jarriko dugu, informazio gehiago behar izanez gero gurekin harremanetan jartzeko. Batez ere autobideetako gasolindegietan jarriko ditugu, jende asko han gelditzen delako depositua gasolinaz betetzeko.

Kartela horrela izango da:



ELEKTROLINERA

Auto elektriko bat erosi nahi duzu,
baina beldur zara bidaia osoan ez
ote zaituen iraungo?

SOLUZIOA DUGU

**Haririk gabeko kargatzeko bateriak
aurkezten dizuegu**



INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

675 897 543 anelektrolinera@gmail.com